


ANOETAKO UDALA

EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO

P L A N A



2001

NORMALIZAZIO EKINTZAK¹

IDAZKARITZA

LANJARDUNA: 9 – Osoko Bilkuraren bilerak zuzendu eta aktak egin.

ZK	DOK. MOTA	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZAK	HARTZAILEAK	HASI	AMAITU	ERANTZULEA	BALIABID.	ADIERAZ.	OHARRA
9-2-1	Bandoa	Euskaraz	Hizkuntz irizpideak lantzea/betetzea	ADMIN. LAGUNTZ. ADMIN. LAGUNTZ.	01-03-01	01-09-01	Arduradun politikoa Jarraipen Batzordea			
9-5-1	Akta	Euskaraz	Hizkuntz irizpideak lantzea/betetzea	IDAZK KONTUHAR TEKNIKARIA	01-03-01	01-09-01	Langilea	HAEE-IVAPen ereduak	Bandoaren erredakzioa	
9-5-2	Akta	Euskaraz	Taldekako trebakuntza	IDAZK KONTUHAR TEKNIKARIA	01-03-01	01-09-01	Hizkuntza normalizatzailea	Euskaltzaindiaren arauak	Txostenen erredakzioa	
9-7-1	Jakinarazpena	Euskaraz	Hizkuntz irizpideak lantzea/betetzea	ADMIN. LAGUNTZ. ADMIN. LAGUNTZ.	01-03-01	01-09-01	Arduradun politikoa Jarraipen Batzordea		Aktaren erredakzioa	

¹ **Dok.mota:** zer-nolako dokumentua den urratsean sortzen dena.

Helburua: dokumentuari edo honen sortzaileari jarri zaion lan-helburua. (Adib. Dokumentua egokitu; langilea trebatu)

Normalizazio-ekintza: helburua lortzeko hartuko diren neurriak eta eskainiko diren laguntzak.

Hartzaileak: normalizazio-ekintzaren jasotzailea, gehienetan dokumentu-sortzailea bera izaten da.

Hasi eta Amaitu: normalizazio-ekintza gauzatzeko aurreikusi den epea.

Erantzulea: normalizazio-ekintza egoki gauzatzearen erantzule zuzena.

Baliabideak: normalizazio-ekintza gauzatzeko aurreikusi den gizabaliabideen lanordu-kopurua edo bestelako eginbeharrekoen eta premien diru-gastua.

Adierazleak: normalizazio-ekintzaren gauzatzea egokia den neurtzeko erabiliko den neurpidea.

Oharra: zutabe hori urratsaren gainean zer edo zer apartekorik adierazi beharrekoetarako aurreikusi da.

Normalizazio ekintzak

Landu beharreko normalizazio-ekintzak lanjardunen proposamenetarako zein alorkako proposamenetarako balio dute, eta kontuan hartzen dituzte hizkuntza irizpideak ere. Era askotako normalizazio-ekintzak ditugunez, nabarmenenak laburbildu ditugu ondorengo zerrendan. (AEBEMET aplikazio informatikoan ere zerrenda bera erabili da):

1. Derrigortasun data edo HE egokitzea
2. Hizkuntza prestakuntza orokorra: euskalduntze/alfabetatzea
3. Banakako trebakuntza
4. Taldekako trebakuntza
5. B.H.ko dokumentuak egokitzea
6. K.H.ko dokumentuak egokitzea
7. Barneko hizkuntza paisajea euskaratzea
8. Kanpoko hizkuntza paisajea euskaratzea
9. Laneko formazioa euskaraz egitea
10. Programa informatikoak euskaratzea
11. Terminologia/lexikoa lantzea
12. Zuzenketak lantzea
13. Hizkuntza aholkularitza
14. Itzulpena: gaztelaniatik euskarara
15. Itzulpena: euskaratik gaztelaniara
16. Hizkuntza irizpideak lantzea/betetzea
17. Hitzarmengintza
18. Erabilerarako komunikazio zirkulua
19. Gai jakinetarako komunikazio zirkulua
20. Komunikazio plana kudeatzea
21. Normalizazio ekintzak kudeatzea
22. Ebaluazioa kudeatzea
23. Hizkuntza kalitatea bermatzea

1.4. Lanjardunen neurketa eta jarraipena

Lanjardunen egungo egoera eta proposamenak kontuan hartuta, hizkuntzen normalizazio mailaren jarraipena egiteko ondoko adierazleak izango dira kontuan: Lanjardunka (1-4 adierazleak) eta lanurraska (5-8 adierazleak). Aplikazio informatikoan agertzen dira adierazle guztiak.

Egoera

Adierazle ZK.	Izena	%	Guztira	E	Bi	G
1	Euskarazko/ele bietako lanjardunak	68	50	24	10	16
2	Euskarazko lanjardunak	48	50	24	10	16
3	Barne harremanetarako euskarazko eta elebietako lanjardunak	65	20	8	5	7
4	Kanpo harremanetako euskarazko eta ele bietako lanjardunak	70	30	16	5	9
5	Euskarazko eta ele bietako lanurratsak	66,20	216	86	57	73
6	Euskarazko lanurratsak	39,81	216	86	57	73
7	Barne harremanetako euskarazko eta ele bietako lanurratsak	63,41	82	40	12	30
8	Kanpo harremanetako euskarazko eta ele bietako lanurratsak	67,91	134	46	45	43

Ilunduta ageri diren laukietako datuak hartu dira kontuan adierazle bakoitza lortzeko eta hirugarren zutabeen adierazle bakoitzaren zenbatekoa adierazten da ehunekotan

Informazio hori, normalizazio ekintzen garapenarekin batera aztertuko da. Hori horrela izanik, plana inplementatzen hasi eta urte betera egingo den datu bilketak emango digu bilakaeraren nondik-norakoa.

2) ALORKAKO EGOERAREN ARABERAKO HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK

Alorkako azterketa diogunean edozein erakunderentzat estrategikoak diren egoera multzoak lantzea esan nahi da, hala nola: langileen hizkuntza gaitasuna, barne/kanpo harremanak, hizkuntza paisajea, baliabide informatikoak eta jarrerak / sentsibilizazioa.

Azterketa honetan aipaturako alor bakoitzeko egoera adierazgarriak aukeratzen ditu erakunde bakoitzak, landuko diren helburuen arabekoak. Alorkako azterketa hau kuantitatiboagoa da eta lanjardunen bilketaren osagarri. Jarraipenerako sistema errazteko bidea ere ematen du, lagin edo muestra bidez aukeratutako alorren egoera era azkarrean jaso eta adieraziz.

Alorretan era honetako informazioa lantzen da:

1. Alorra: hizkuntza gaitasuna: HE, DD, derrigortasunen betetze maila, hizkuntza prestakuntza orokorra, trebakuntza.
2. Alorra*: kanpo harremanak. Udaletik kanpora doana jasotzen da hemen, herritarrei, beste administrazioei, hornitzaileei eta abarrei zuzendutakoak, hain zuzen ere.
3. Alorra*: barne harremanak. Udalaren barruko harremanak (atal barne/atal artekoak) jasotzen dira, hala nola: barne zirkularrak, ofizioak, txosten labur/luzeak, ahozko eta telefonozko harremanak e.a.
4. Alorra*: Hizkuntza paisajea. Erakundearen irudia jasotzen da bai kanpora bai barrura begirakoa: errotulazioa, katalogoak, iragarkiak, etiketajea, zigiluak, e.a.
5. Alorra*: Baliabide informatikoak eta teknologia berriak. Euskaraz lan egin ahal izateko baliabide informatikoen egoera aztertzen da.

* 2 ,3 , 4 eta 5 alorretako azterketa, lagin edo muestra bidez egiten da; hau da aukeratutako adierazleen araberako muestrak eta berorien hizkuntza egoera jasotzen da.

2.1.-HIZKUNTZ GAITASUNA

Atal honetan udalari dagokion derrigortasun indizea, indize horren betetze maila, hau da, zenbat langilek egiaztatu duten lanpostuak ezarrita duen HE, langile elebidunen portzentajea, ordezkari politikoen hizkuntza gaitasuna eta langileen trebakuntza maila jasotzen dira. Langileek betetzen duten lanpostuko lan eginkizunak euskaraz eragozpenik gabe egin ahal izan ditzaten ematen zaien prestakuntza bereziari deituko diogu trebakuntza. Prestakuntza banakakoa zein taldekoa izan daiteke. (Zehaztasun gehiagotarako begiratu eranskinetako 7. koadernoan, hizkuntza prestakuntzarako irizpide eta proposamen zehatzak jasotzen diren puntuan)

2.1.1.- Udal langileen hizkuntz gaitasuna

HEen eta derrigortasun daten kudeaketa.

Lanpostu zerrendak eguneratzea, HE egokitzea, derrigortasun datak ezartzea, prestakuntza antolatzea eta banakako planak egitea.

Hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila.

ADM. ATALA	LANP KP	HU- TSAK	DD %	EGIAZTATUTAKO HE				EGIAZTATU GABEKOEN HIZKUNTZ GAITASUNA				
				4HE	3HE	2HE	1HE	1-7	7-12	EGA	ALF0	ALF1
IDAZK-KONTUH	5	0	80,00	2	1	1	0	0	0	1	0	0
LIBURUTEGIA	4	0	20	0	1	0	0	0	0	3	0	0
OINARRIZKO GIZARTE ZERB.	1	0	100	0	1	0	0	0	0	0	0	0
OBRA HIRIGINTZA	1	0	0,00	0	0	0	0	0	0	0	1	0
UDAL ZERBITZUAK	3	0	33,33	0	0	1	0	0	0	0	2	0
GUZTIRA	14	0	62.66	2	3	2	0	0	0	4	3	0

Anoeta Udalean guztira 20 langile daude. Horietatik 14k plantila organikoa osatzen dute. Horietatik, 7 lanpostuk ezarrita dute DD eta 6k egiaztatu dute dagokien HE eta langile batek, idazkari-kontuhartzaileak, ez du egiaztatu. Beraz, Anoetako Udaleko akreditazio-indizea %85,71 da.

Plantila organikoa osatu eta derrigortasunik ez daukaten 7 langiletatik 3k EGA dute, musika irakasleak guztiak; horiek aldizkako langile finkoak dira. Aparejadorea, kale garbitzailea eraikinen garbitzailea eta piano eta solfeo irakaslea euskaldun zaharrak dira.

Lanpostu zerrendakoak ez diren lanpostuak 6 dira: idazkaritzako teknikaria, liburutegiko laguntzailea, giza-kultur dinamizatzailea eta 3 musika irakasle. Horietatik 3k HEren bat lortuta dute: idazkaritzako teknikariak 4HE, liburutegiko laguntzaileak eta giza-kultur dinamizatzaileak EGA.

Helburua eta proposamena

HE egiaztatu gabekoak: prestakuntza beharrianak

Helburua da langile guztiak dagokien HE lortzea da eta Funtzio Publikoaren Legea bete. Idazkari-kontuhartzaileak aspaldi igarota dauka dagokion 4HE egiaztatze azken data.

- ♣ Idazkari-kontuhartzailea: 4HE du ezarrita eta 2HE lortuta. 1998ko ekainaren 9ko Aginduaren arabera, 1.008 prestakuntza ordu (euskaltegian 9. urratsean hasita) beharko lituzke dagokion HE lortzeko.
Proposamena: apirila-ekaina bitartean, udalean antolatuko diren trebakuntza-saioetan parte hartzea. Beste alde batetik, eta aurrekoaren osagarri modura, beharrezkoa da langile honek euskara eskolak hartzea. Aukera bat baino gehiago dago: udaletxean bertan, astean 3 egunez, eguneko ordu eta erdiz, irakasle batek eskolak ematea batetik. Beste alde batetik, euskaltegiren batean matrikulatu. Aukerak hor daude eta erritmoa gero zehaztu daiteke. Garrantzikoena langileak eskolak hartzea da.
- ♣ Arkitekto teknikoa: 3HE ezarria du eta ez du HEik egiaztatu. Beraz, bere mailari dagozkion eskolak jaso eta HE egiaztatu ahal izateko deialdietan parte hartzea proposatzen da.
- ♣ Kale-garbitzailea eta eraikinen garbitzailea: 1 HE egiaztatzeko deialdietan parte hartzea proposatzen da, horretarako ekaina bitartean, dagokien mailako eskolak jaso beharko dituzte.

Beste alde batetik, 1996ko euskara-indizearen arabera (%78,48) 11 lanpostuk izan beharko lukete derrigortasun-data ezarrita. Momentu honetan 7k dute, beraz, indizeari egokitzeko 4 lanposturi ezarri beharko litzaieke derrigortasun data. Gaur egun 7 lanpostu dira derrigortasun datarik ez dutenak, eurretatik 2 udal zerbitzuetako garbitzaileak dira.

Indizeari egokitzeko 4 lanposturi derrigortasun-data ezartzeko orduan, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 20 atalak diotenari jarraituz egingo da. Kontuan hartuta, derrigortasun-data ezarrita ez daukanetatik 2 izaera berezikoak direla, euskaldun zaharrak eta ez dutela idatzizko produktiorik, proposamena aparejadoreari DD jartzea izango da batetik. Bestetik, musika irakasleek hurrekin lan egiten dutenez, eta harremana aurrez aurrekoa delarik, beharrezkoa da plantila organikoko langileei bezala HE eta DD ezartzea. Hori egiteko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari (HPS) txostena eskatuko zaio, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 23. atalak diotenari jarraituz. Horretarako, Anoetako Udalak proposamena bidaliko dio HPSri.

Komenigarria da, halaber, aldi baterako langileak hartzen direnean, lanpostuoi HE ezartzea, batez ere jendaurreko lanpostuak betetzeko, hurrekin harreman zuzena duten lanpostuak direnean, harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte-mailakoak direnean.

Beraz, lehenetsun horiei jarraiki, komenigarria litzateke idazkaritzako teknikari, giza-kultur dinamizatzaile eta musika irakasleei ere HE eskatzea.

Trebakuntzarako proposamenak

Helburua da langile bakoitza gauza izatea bere eguneroko zereginak normaltasun osoz euskaraz egiteko. Komenigarria izango da trebakuntzako normalizazio-ekintza batzuk bideratzea. Izan ere, administrazioan euskaraz diharduten langile askok, lanpostuari dagokion HE egiaztatuta izateaz gain, ezinbestekoa dute, udalerrri euskaldunetan batik bat, hizkuntza kalitate frogatuko zerbitzua eskaintzea, udal-arduradunek eta herritarrek administrazioako jarduketara euskaraz egin ahal dezaten, erdaretara jo beharrik gabe.

Horretarako proposatu dira trebakuntza-saioak: lan hori jaso, irakurri edota erabaki/bete behar duen agintariak edota herritarrak zuzen, egoki eta erraz ulertzeko eran egin dezan.

Anoetako Udalaren kasuan, hizkuntz idatzian eragina duten administrazio ataletako langileek —*Idazkaritza-Kontuhartzaitza, Liburutegia, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Obra-Hirigintza*—, aurreko puntuan zehaztutako prestakuntza saio pertsonalez gain, arestian aipatutako trebakuntza-saioetan parte hartuko dute, harik eta HAEE-IVAPek edo/eta UEMAK eskualde mailan antolatuko balituzte. Bitartean UEMAKo euskara zerbitzuarekin eskutik erabilera-plan hau gauzatzeko internet edo beste bideetatik eskainiko dituen aldian aldiko saio eta zerbitzuak jasoko dituzte.

2.1.2.- Udal arduradun politikoen hizkuntz gaitasuna

KARGUA	E ulertu	E mintzatu	E irakurri	E idatzi
1. Alkatea	5	5	5	5
2. Alkateordea	5	5	5	5
3. Kultura/Euskara/Kirola/Gazteriako batzordeburua	5	5	5	5
4. Gizarte Zerbitzetako batzordeburua	5	5	5	5
5. UEMAKo 1. ordezkaria	5	5	5	5
6. Bigarren alkateordea	5	5	5	5
7. UEMAKo 2. ordezkaria	5	5	5	5
8. Hazienda batzordekidea	5	5	5	5
9. Kultura batzordekidea	5	5	4	3

E: euskaraz 1: ezer ez 2: hitz batzuk 3: zertxobait 4: nahikoa ongi 5: ongi

Datuotan ikus daitekeenez, Anoetako Udaleko arduradun politikoez ez dute inolako arazorik euren jarduna euskaraz burutzeko. Nolanahi ere, ahal den neurrian, gomendagarria litzateke irakurmen-idazmenetan guztiak, eta bereziki maila apur bat jaitsiagoa dutenak, gaitasun horietan trebatuz joatea, udal jardueran gero eta hobeto molda daitezen.

2.2.-KANPO HARREMANAK

2.2.1. Egoera

Udalak udalaz kanpokoekin dituen harremanak dira kanpo harremanak, bai ahozkoak bai idatzizkoak. Udalaren kanpo harremanik ohikoenak honako hauekin izaten dira: herritarrak, erakunde publikoak, zerbitzu enpresak eta hornitzaileak.

Kanpora begirako harremanen azterketa egin denean, hurrengo taulako egoera aurkitu dugu.

Taula honetan ageri diren emaitzak udaletxetik ateratzen diren dokumentuei dagokiena da, hemen ez dira kontuan hartu kanpotik udaletxera datozen agiriak.

Kanpora begirako harremanen azterketa egin denean, hurrengo taulako egoera topatu da.

KANPO HARREMANAK

Administrazio atala	Hizkuntzaren erabilera Ahoz.					Hizkuntzaren erabilera Idatziz.				
	Lagina	Adie. %	E	Bi	G	Lagina	Adie. %	E	Bi	G
IDAZKARITZA-KONTUHAR-TZAILETA	13	76,92	10	0	3	28	100	0	28	0
OBRA-HIRIGINTZA	7	71,43	5	0	2	31	96,77	3	27	1
UDAL ZERBITZUAK	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
LIBURUTEGIA	5	100	5	0	0	32	100	13	19	0
OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK	70	10	7	0	3	100	12	3	9	0
OROKORRA	35	77,14	27	0	8	103	99,03	19	83	1

* Adierazleen ehunekoak lortzeko euskarazko eta elebietakoak hartu dira kontuan.

Taulan agertzen den informazioa era honetan aztertu dugu:

Lagina: Atal honetan kanpo harremanetako egoeretan jasotako lagin edo muestra kopurua ageri da.

%: Indizea ehunekoetan ageri da, eta euskarazkoak eta elebietakoak hartu dira kontuan.

E, Bi, G: Nahiz eta indizeak euskarazko + elebietako kasuak kontuan hartu, hemen agertzen da hizkuntza bakoitzean jasotakoaren oinarrizko egoera.

Ahozko komunikazioetan euskararen erabilera aztertzeko, ondoko egoerak neurtu dira:

a).-Telefonoa jasotzean erabiltzen den lehen hitza.

b).-Udalera urreratzen diren herritarrei harrera zein hizkuntzatan egin zaien.

Idatzizko komunikazioetan erabilera zertan den jakiteko, ofizioak, txostenak, dekretuak, erabaki proposamenak, baldintza pleguak eta kanpora doazen beste dokumentu batzuen laginketa egin da. Herritarrei zuzendutako 51 dokumentu erraz eta 20 konplexu, erakundeei zuzendutako 23 dokumentu erraz eta 2 konplexu, zerbitzu enpresei bidalitako 5 dokumentu, hornitzaileei zuzendutako 2 dokumentu eta sarreretakoa era irteeretako 18 lagin. Guztira 103 lagin hartu dira. (Datu zehatzagorik nahi izanez gero, alorkako datu-bilketa izeneko eranskinaren 3. koadernora jo)

2.2.2. Helburuak: Bi urtera eta aurtengoak

Kanpora begira, helburu nagusia, harreman hizkuntza ahoz eta idatziz euskara izatea da, beti ere kontuan izanda herritarrak hizkuntza aukeratzeko eskubidea daukala. Bi urtera begira euskarazko ahozko harremanen maila egonkortu eta kualitatiboki aberastea izango da jomuga. Idatzizko harremanei dagokienez, euskara hutsezko erabilera %100era heltzea izango da helburua.

Lehenengo urterako helburuak

Lanjardunen aukeraketa-irizpideetan jasota dagoen legez, lehenengo urte honetan garrantzi berezia emango zaio herritarrekin izaten diren harremanetan euskararen

erabilera areagotzeari, bai eta kanpoko harremanetarako idatzi labur eta errazenetan euskararen presentzia areagotzeari ere. Helburuak honako hauek dira:

Ahozko kanpo harremanak: Ahozko harremanen datuek, harrera hizkuntza, hasierako lehen hitzetako hizkuntza jasotzen dituzte eta horietan, egoera nahikoa ona dela ikusi da. Datorren urteko helburua udaleko erabilera indize orokorra %77,14tik %100era hurbiltzea izango da; batez ere atal hauetan eragin beharko da idazkaritza-kontuhartzailtzan, obra hirigintzan eta oinarrizko gizarte zerbitzuetan.

Ahozko kanpo harremanetan aipatu administrazio-ataletako lehenengo urterako helburuak hauexek izango dira:

- Idazkaritza-kontuhartzailtzan erabilera %76,92tik %100era heltzea.
- Obra-hirigintzan erabilera %71,43tik %100era igotzea
- Oinarrizko gizarte zerbitzuetan erabilera %71,00tik %100era heltzea.

Aipatu administrazio-ataletan langileei emango zaien boletinean azalduko da ahozko erabileraren garrantzia eta udalak telefonoa hartzean eta leihatilan jendea atenditzeko momentuan jarritako hizkuntza irizpideak.

Idatzizko kanpo harremanak:

Udala orokorrean

Udalaren idatzizko kanpo harremanetan euskararen erabileraren indizea %99,03 da, indize honetan euskara hutsezkoak eta elebietakoak sartu dira. Euskara hutsezko indizeari erreparatzen badiogu, aldiz, zera daukagu: erabilera-indizea %18,44 dela.

Lehen urte honetan elebietako indizea jaitea jarri behar dugu helburutzat, hau da, herritarrentzat diren inprimaki, jakinarazpen, bando, dekretu eta antzekoetan euskara hutsezko erabilera %50era jasotzea (une honetan %11,26koa da)

Erakundeei zuzendutako ofizioetan, komunikazio administratiboetan ere, hau da, dokumentu errazetan, euskara hutsezkoaren indizea %75era eramatea izango da helburua (une honetan %34,78koa da).

Udala administrazio-atala

Idazkaritza-Kontuhartzailtzan ez da euskara hutsezko idazki bat bera ere jaso; oso datu azpimarragarria da 86/1997 Dekretuari jarraituz (15. art.) Anoetaren modura %78,46 euskara-indizea duen udalerrri euskaldun bateko udal administrazio-atal baterako. Beraz, administrazio-atal honetan helburua euskara hutsezko erabilera %50era heltzea izango da, eta herritarrentzako eta erakundeentzako dokumentu errezetan jarriko da arreta, baita erakundeei zuzendutako txosten eta memorietan ere.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan euskara hutsezko agiriak kontuan hartua, indizea %25ekoa dela ikusi dugu. Helburua %70era heltzea izango da eta horretarako herritarrentzako eta erakundeentzako idazki errazetan eta zerbitzu enpresei bidalitako baldintza pleguetan jarriko dugu arreta.

Hirigintzan euskarazko eta elebietako idazkiak kontuan hartuta euskararen erabilera %96,77 da, baina horietatik %9,67 baino ez da euskara hutsezkoa. Helburua, beraz, erabilera %50era eramatea izango da, eta batez ere herritarrentzako eta erakundeentzako idazki errazetan jarriko dugu arreta.

Liburutegia da euskararen erabilera-indize altuena daukana, %100, hain zuzen ere. Hemen ere, elebietako indizea oso altua dela ikusi dugu, %59,37. Lehen urte honetako

helburua herritarentzako idazki guztiak euskara hutsez izan daitezen egingo da ahalegina.

Beste alde batetik, bereizirik eman nahi izan dugu, beste administrazio publiko zein pribatuetatik, zerbitzu enpresetatik eta hornitzaileengandik udaletxera heltzen diren agirien hizkuntza.

Helburua, beraz, erakunde publiko zein pribatuekin, enprekin, hornitzaileekin dauden harremanak euskaraz ere izatea lortzea da helburua. Kanpo harremanetan lortu behar dena ondorengoa da: beste erakundeek, enpresek, hornitzaileek udalarekiko harremanen ehuneko handia euskaraz izatea.

- ⊞ Zerbitzu enpresek zuzendutako dokumentuak.
- ⊞ Erakunde publikoek bidalitako idatziak.
- ⊞ Hornitzaileek bidalitako albaran eta fakturak eta abarrekoak.

Ahozko kanpo harremanak: Lehen urte honetarako helburua, erakundeetan eta hornitzaileagan harremanetarako langile elebidunak identifikatzea izango da.

Idatzizko kanpo harremanak:

Helburuak:

1. Erakunde publikoekin:

- ⊞ Gaztelera hutsezko agiririk ez heltzea. Lehenengo urtean gutxienez euskaraz bidaltzeko konpromisoa har dezatela lortzea.
- ⊞ Elebietan bidaltzen diren agiriak, euskara hutsean bidaltzeko ahalegina egin dezatela. Eta bide horretatik, euskara hutsez jasotzen denaren indizea igotzea.

2. Erakunde pribatuak:

- ⊞ Hauekiko harremanak gutxienez euskaraz ere nahi direla adieraztea eta gutxienerako konpromiso batera heltzea.

Alorkako jarraipena egiteko 34-38, 41-50 adierazleak (Kanpo harremanetako ahozko eta idatzizko hizkuntza) hartuko dira kontuan, eta horien irakurketa lanjardunen egoeraren adierazle direnekin batera egingo da.

2.3.-BARNE HARREMANAK

Egoera

Barne harremanak langileek beren administrazio atalaren baitan zein beste atal batzuekin dituzten harremanak dira. Barne harremanetan sartzen dira atal barneko dokumentuak eta atalen artekoak, arduradun politikoekin egiten diren batzarrak eta, orokorrean, udalaren ohiko funtzionamenduko harremanak.

Kanpo harremanetan egin den bezala, barne harremanetan ere ahozkoak eta idatzizkoak bereizi dira.

Ondoko koadroan ikus daiteke atal bakoitzean jaso den laginaren zenbatekoa eta bai ahozko bai idatzizko erabilera indizea ere.

BARNE HARREMANAK

Administrazio atala	Hizkuntzaren erabilera AHOZ					Hizkuntzaren erabilera IDATZIZ				
	Lagina	Adie. %	E	Bi	G	Lagina	Adie. %	E	Bi	G
IDAZKARITZA -KONTUHARTZAI LETZA	10	80	8	0	2	48	21	3	7	11
O B R A HIRIGINTZA	2	100	2	0	0	17	82	9	5	3
UDAL ZERBITZUAK	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
LIBURUTEGIA	2	100	2	0	0	9	100	8	1	0
OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK	3	100	3	0	0	9	100	8	1	0
OROKORRA	17	88,24	15	0	2	56	75	28	14	14

* Adierazleen ehunekoa lortzeko euskarazko eta elebietakoak hartu dira kontuan.

Hau da taulan agertzen den informazioa hauxe dugu:

Lagina: Atal honetan kanpo harremanetako egoera desberdinetan jasotako lagin edo muestra kopurua agertzen da.

%: Indizea portzentajeetan agertzen da, eta euskarazko eta elebietako barne harremanak hartu izan dira kontuan.

E, Bi, G Nahiz eta indizeak euskarazko + elebietako kasuak kontuan hartu, hemen agertzen da hizkuntza bakoitzean jasotakoaren oinarritzko egoera.

Ahozko euskarazko harremanen zutabean telefonozko barne harremanak aztertu dira.

Idatzizko euskarazko dokumentuen zutabean, barne zirkular/ofizietako hizkuntza (1), nomina orri/pertsonalaren eskaerak (5), lan-bileretako agiriak (12), txosten laburrak (12), txosten luzeak (5), aurrekontu dokumentuak (10) eta lan kontratu 1 aztertu dira. Guztira 56 lagin hartu dira. (Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, datu bilketa izeneko III. Eranskineko 4. koadernora jo)

Helburuak: Lehenengo urterako

Ahozko barne harremanak: Atalen arteko ahozko harremanei dagokionez, egoera nahikoa ona dela esan daiteke. Udalaren euskararen ahozko erabilera-indizea %88,24koa da. Hala ere, idazkaritza-kontuhartzaitzaren erabilera-indizea %80koa da, beraz, atal honetan erabilera %100era heltzea izango da helburua; gainerakoetan erabilera mantentzea eta sendotzea.

Idatzizko barne harremanak: azterketak hurrengoak erakutsi du:

Idatzizko erabilerari dagokionez, bi multzotan banatu ahal da udalaren egoera.

- ◆ Barrurako idatzien erdia baino gutxiago euskaraz egiten dutenak: Hemen dago idazkaritza-kontuhartzaitza. Euskararen erabilera produkzioaren hiru laurden inguruan finkatzea da, hau da %75era altxatzea. Egungo erabilera %48koa da.

- ◆ Beste multzoan erabilera maila altuak erakusten dutenak dauzkagu: obra-hirigintza, liburutegia eta gizarte zerbitzuak. Liburutegian eta gizarte zerbitzuetan datu horiei eustea eta gorago joatea da helburua, %100era heldu arte. Horretarako, lan bileretako agiriak euskara hutsean egitera bideratuko da ahalegina. Obra-hirigintzako euskararen erabilera-indizea %82koa da. Gaztelerazko erabilera oraindik %17,64koa da: txosten laburretan, alegia. Lan-bileretako agiriak ere elebrietan egiten dira. Lehen urte honetan, beraz, lan bileretako agiriak euskara hutsean egotera bideratuko da ahalegina.

Alorkako jarraipena egiteko 51-45, 56-64 adierazleak hartuko dira kontuan (barne harrenetako ahozko eta idatzizko hizkuntza), eta horien irakurketa lanjardunen egoeraren adierazle direnekin batera egingo da.

2.4. HIZKUNTZA PAISAIA

Hizkuntza paisaia, udalaren irudia osatzen duten elementuek gorpuzten dute, balio sinboliko zein informatiboa erantsiz. Kanpoko hizkuntza paisaian errotulu nagusiak, informazio eta norabidezko errotuluak, aparkalekuetakoak, katalogo, gida, prentsa iragarki, megafonia eta etiketajea jasotzen dira; barruko hizkuntza paisaian, ostera, barruko informazio eta norabide errotulazioa, bulegoetako dietario, egutegiak, e.a., tresneria, fotokopiagailuetakoak, ziguiluak eta anagramak, jasotzen dira.

2.4.1. Egoera

Egoeraren azterketa, leku fisikoen arabera egin da: Alde batetik, udaletxe barrua eta kiroldegia eta bestetik herrian zehar, udalaren erantzukizuna diren errotulu, seinale eta antzekoak kontabilizatu dira.

Administrazio-atala	KANPOKO Hizkuntz paisaia					BARRUKO hizkuntz paisaia				
	Lagina	Adie. %	E	Bi	G	Lagina	Adie. %	E	Bi	G
IDAZKARITZA KONTUHAR- TZAILITZA	1	100	1	0	0	155	45,16	53	17	85
OBRA HIRIGINTZA	27	100	1	26	0	6	66,67	0	4	2
UDAL ZERBITZUAK	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
LIBURUTEGIA	1	100	1	0	0	76	100	46	30	0
OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK	4	100	1	3	0	26	100	21	5	0
OROKORRA	33	100	4	29	0	263	66,92	120	56	87

Kanpoko hizkuntz paisaian, adib., 33 elementuren laginketa egin da: Udaletxeko errotuluak (4), katalogoak eta gidak (1) eta prentsa iragarkiak (28) jaso dira, eta %87,87 elebrietan daude eta %12,12, euskara hutsez.

Barneko hizkuntz paisaian 263 elementu jaso dira: barne-errotulazioa (87), karpeta eta agiriteriko etiketajea (153) bulegoko tresneriaren errotulazioa (10) eta ziguilu, fax orri

eta gutunazalak (13) aztertu dira eta hauen guztien indizea %66,92koa da. Euskara hutsezko erabilera, halere, %45,62 da, elebietakoa %21,29koa eta %33,07koa da

Argi ikusten da ahalegin handia egin dela hizkuntza kanpoko paisaiaren egoera jagoten. Dena dela, elebietakoen indizea oso altua da, %87,88, argitalpen guztiak elebietan egiten direlako.

Barruko hizkuntza paisaian indizerik txikienak bulegoetako dietario-egutegietan, tresnerian, suitzalgailu, fotokopiagailu eta antzekoetan ematen dira.

2.4.2. Helburua

Helburua da udalaren irudian, oro har, euskararen presentzia bermatzea eta orain erakusten duen mailari eustea; garrantzi handiena dute, begi-bistakoak izanik, eragin nabarmena duten elementuek: udaletxe barruko errotulazioa, etiketak, barruko informazioa, zigiluak, fax orria... Eta jada euskaraz daudenez, egoera horri eutsi eta sor daitezkeen berrietan euskararen presentzia bermatzea da helburua.

Lehen urte honetan, arreta berezia eskainiko zaie bulegoko fitxategi, artxibadore eta, oro har, eguneroko lanarekin lotutako elementuei —zigilu, fax orri etab.i esaterako— baita udalaren kanpoko irudiari lotutako zenbait elementuri ere.

Beraz, proposatzen diren helburu eta aldaketak zehatz-mehatz eranskinetako 5. koadernoan jaso dira.

2.5. BALIABIDE INFORMATIKOAK

Gero eta garrantzia handiagoa hartuko duen alorra dugu hau, udaletako funtzionamenduan baliabide informatikoen erabilera areagotuz doalako. Horrela bada, informatikaren eta teknologia berrien munduan ere pausoz pauso hizkuntz normalkuntzari ekitea komeni da.

Hain erabilia den IZFEk eskeinitako tresna informatikoa gazteleraz dago, langileek ahal duten neurrian euskaraz erabili arren. Honetaz gain, IZFEren aplikazioak erabili behar dituzten ordenagailuetan Windows gazteleraz jarri behar izaten da, aplikazioa ez delako euskarazko bertsioarekin bateragarria.

Administrazio atala	Programa informatikoa	Programaren izaera	Hizkuntza	Hizkuntza aldatzeko aukerak
SAIL GUZTIAK	Windows Office	Datu-basea Excell Access Word	Gaztelera	BAI
IDAZKARITZA KONTUHARTZAIL ETZA	Sarrera-irteerak	Erregistrokoa (IZFE)	Gaztelerez	
	Ura, zaborra eta abarren padroia	Erregistrokoa (IZFE)	Gaztelera	
	Biztanleen errolda	Erregistroa (IZFE)	Gaztelera	
		Aurrekontua	Gaztelera	
	SIGE	Kontabilitatea	Gaztelera	
LIBURUTEGIA	ABSYS	Katalogazioa	Gaztelera > Euskaraz	

Helburua, baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea da, beti ere euskarazko bertsioek, erdarazkoaren kalitatea ziurtatzen duten neurrian.

Lan hizkuntza euskara izanik, programa informatikoak erosteko orduan, euskarazko bertsioa erosiko da. Windows 95 eta Office 97 edo Windows 98/Office 2000 euskarazko bertsioak eskuragarri jarriko zaizkie langileei.

IZFEren eskutik jasotzen diren aplikazioei dagokionez, aipatu beharra dago nagusiki gaztelera daudela. Zenbait dokumentu (ura eta zaborraren ordaiketarako agiria, adibidez) elebitan eskeintzen dituzte; beste batzuetan berriz, euskaraz egiteko aukera ere badago (nominak), baina esan bezala lanerako tresna gaztelera dago, guztiz ez bada ere, nagusiki. Beraz, tresna hauek euskaratzeko eskatuko zaio IZFEri.

Horrez gain, euskararen erabilerarako interesgarria litzateke (baita udalaren beraren funtzionamendurako ere) informatika sareetan sartzea, administrazio publikoek eta erakundeek sarean dituzten baliabideak aprobetxatu ahal izateko (Euskalterm, administrazio idazkiak, hiztegiak). Jarraipena egiteko 65-71. adierazleak erabiliko dira.

3.-HIZKUNTZ IRIZPIDEAK

Zenbait jarduera-esparrutarako hizkuntz irizpideak

Hizkuntz irizpideok plana garatu ahala joango dira jorratzen. Besteak beste, honako jarduera-esparruok hartuko dira kontuan:

- 3.1. Langileen etengabeko prestakuntza
- 3.2. Kontratazioak
- 3.3. Dirulaguntzak
- 3.4. Administrazioaren irudia eta argitalpenak
- 3.5. Ekitaldi Publikoak
- 3.6. Udal-baimenak

Jarraian proposamen batzuk egingo dira lanean hasteko, beti ere, erakundeen hizkuntz politika koordinatze aldera, aurrerantzean osatu edo egokitu daitezkeenak.

3.1. LANGILEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

• Hizkuntz Prestakuntza

Hizkuntz prestakuntzaren inguruan administrazio honek jarraitu beharreko politikak kontuan izan behar ditu bere lanpostu zerrendako hizkuntz eskakizun zehatzak, eta bai plan honek atalerako jarritako helburuak ere.

Legeek arautzen dutena jarraituz, beraz, aginduak, baimenak eta laguntzak emango dira langile zerrendako enplegatuek kasuan kasuko hizkuntz prestakuntza egokia lor dezaten.

Hizkuntz prestakuntzaren inguruan administrazio honek jarraituko duen politikak lanpostu zerrendari aplikatzen zaion derrigorrezko indizeak adierazten dituen hizkuntz helburuak izango ditu kontuan.

Horretarako irizpide argiak eta bateratuak beharko dira lan-orduetan hizkuntz prestakuntzako baimenak ematerakoan:

- 1) Derrigorrez bete beharreko HEk dakartzaten prestakuntza-beharrizanei aurre egingo zaie lehenengo. Hori dela-eta, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langileen eskariak jarriko dira lehenengo.
- 2) Udal jardueran, kanpora zein barrura begira, hizkuntz erabilera eta eragin handiagoa duten lanpostuak lehenetsiko dira.
- 3) Edozein kasutan, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langile guztiak izango dira kontuan hizkuntz prestakuntza ematerakoan, karrerako nahiz behin-behineko funtzionarioak izan.

Hizkuntz prestakuntza aldia bete eta, kasuan kasuko gizalegezko luzapenak eman ondoren, dagokien HE egiaztatu ez duten izaera berezikoak ez beste lanpostuetako langileei plangintzaldi hau arautzen duen 86/1997 Dekretuaren 44. atalean aurreikusten den lanpostutik kentzeko espedientea hasiko zaie.

• Langileen etengabeko prestakuntza

Plangintzaldi honen lehen urtean udalean egiten diren prestakuntza-ikastaroen azterketa egingo da, horien hizkuntz egoera ezagutzeko. Ondoren, emaitzen arabera finkatuko dira aurrera begira eremu honetan jarraitu beharreko hizkuntz irizpideak. Bien bitartean, ondorengo hizkuntz irizpide orokorrak aplikatuko dira:

- ♣ Arian-arian ikastaroak euskaraz egiteko eskaintza ugarituz joango da hizkuntz gaitasun nahikoa duten langileentzat.

- ♣ Prestakuntza ekintzen eskaintzen artetik, izaera orokorra dutenek izango dute lehentasuna.
- ♣ Prestakuntza eskaintza guztietan espresuki aipatuko da ikastaroan erabiliko den hizkuntza.
- ♣ Euskarazko eskaintzaren ezaugarriek gaztelaniazkoarenak bezain erakargarriak izan beharko dute.

3.2. KONTRATAZIOAK

3.2.1. Aldi baterako langileen kontratazioa

Edozein dela ere egitekoa, aldi baterako langilerik kontratatu behar izanez gero, udalak plantilako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exigitzen dien HEren pareko euskara-gaitasuna eskatuko die.

Horretarako, deialdian espresuki zehaztuko da zein den ondorengo euskara-mailetatik kasuan kasuko kontrataziokoan eskatuko dena:

- Ahoz eta idatziz euskara ulertzea (1HE)
- Euskara ulertzea, mintzatzea eta irakurtzea (2HE)
- Euskara ulertzea, mintzatzea, irakurtzea eta idaztea (3HE)
- Gaitasun maila jasoak euskararen ulermen, mintzamen, irakurmen eta idazmenean (4HE).

Beharrezkoa denean, beraz, udalak kontratazioa egin aurretik dagokion euskara-proba egingo die izangaiei.

3.2.2. Kontratazio administratiboak

1. Udalaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez¹.
2. Kontratazio-gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekiko edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d atalean ezarritakoari jarraiki, honako neurriak hartuko dira:
 1. Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek euskaraz atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.
 2. Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz ematea bermatu beharko du kontratistak.
 3. Kontratazio-gaia herritarren zuzeneko zerbitzu-prestazioa denean edo/eta herritarren adierazpeneko jarduketetan (errotuluak, abisuak...) aipatu hizkuntz baldintza horiek betetzen ez bada edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko euskarazko hizkuntz gaitasuna duten nahikoa langile jartzen ez bada, espedientea irekiko da kalte-ordainak eskatzeko edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda, bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko.

¹ 18.d. kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezzen.

Udaletan egin ohi diren kontratazio motak kontuan hartuz, Anoetako Udalaren kontratazioen lehen azterketaren arabera, lau kontratu mota daude: (Ikus III. Eranskina, 6. Koaderno)

- K-1/ Udal ondasunen mantenimendu-kontratuak
- K-2/ Aholkularitza tekniko emateko kontratuak
- K-3/ Herritarrei zerbitzua emateko kontratuak
- K-4/ Udal instalazioen esplotazioa
- K-5/ Hornidurak

3.3. DIRULAGUNTZAK

Gizarte-zerbitzuetakoak ez, beste dirulaguntzak esleitzerakoan —kultur, kirol- eta aisialdi-mailakoak batik bat—, udalak kontuan izango du eskatzaileak eskaera egiteko zein zerbitzua emateko dagien euskararen erabilera eta, zehazkiago, ondorengoa eskatuko du:

1. Dirulaguntzaren xede den ekintza —haur eta gazteei zuzendua denean, 25 urte bitarte— euskaraz egingo dela bermatzea eta 25 urtetik gorakoei zuzendua denean, Anoetako euskararen indizearen arabera jokatuko da.
2. Dirulaguntzaren xede den ekintzaren publizitatea euskaraz egitea, gutxienez beste hizkuntzen maila berean, bai kopuruari, bai tamainari dagokienez.
3. Beheragoko orrialdeetan hirigintza-alorreko *udal-baimenetako* hizkuntz irizpideak jorratzen dituen 2) puntuaren eraginkortasunerako, udalak zehaztuko du nola lagundu beren jardunbideko errotulazioa gaztelaniatik euskarara aldatzen duten establezimenduak.

3.4. ADMINISTRAZIOAREN IRUDIA ETA ARGITALPENAK

Anoetako Udalaren irudi eta argitalpenetan euskarak behar duen presentziari buruzko irizpideak finkatzeko honako jarraibideak beteko dira:

1. Udalaren eta honen menpeko erakundeen idazki oro beti euskaraz behintzat argitaratuko da.
2. Udalerrian zabaldu beharreko agiriak (bandoak...) euskarari garrantzia emanaz argitaratuko dira. Erdarazkoa letra txikiagoan azalduko da.
3. Iragarpen ofiziala egin beharreko agiriak eta dekretuak euskaraz argitaratuko dira. Herritarrak euskarazko hizkuntz gaitasunik izan ezean eta iragarpenean dioenak edo dekretuak eragina badu beregan, udalak gaztelaniazko itzulpenaz batera iragarriko dio pertsonalki; era berean, egoera berean diren gainerako herritarrek ere udal-bulegoan eskatu eta jaso ahalko dute agirion gaztelaniazko bertsioa.
4. Sortze hizkuntza euskara izango da eta, behar-beharrezkoa denean soilik, gaztelerazko laburpena gehituko zaio.

3.5. EKITALDI PUBLIKOAK

Udaleko edo honen erakunde autonomoetako kargu eta enplegatuek euskara erabiliko dute udalerrian egin litezkeen ekitaldi publikoetan, erakundean duten kargu edo lanpostuagatik ari badira.

Era berean, udalak zainduko du halako ekitaldietarako izendatuko dituen pertsonak euskarazko hizkuntz gaitasun egokia dutenak izan daitezen.

3.6. UDAL-BAIMENAK

3.6.1. Hirigintza

1. Udalak herritar arruntei edota jardunbide honetako enpresei hirigintzako baimenen bat eman behar dienean, ondorengo baldintzapean emango die: ageriko hizkuntz erabileran bederen —iragarpen, errotulu, ohar, seinale etab.etan, alegia— euskara erabil dezatela, alegia; edota, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskara gutxienez gaztelaniaren pareko presentziaz, kopuruaren eta tamainaren aldetik.
2. Era berean, irekitzeko baimena emateko espedientean udalak errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatuko dio eskatzaileari.

3.6.2. Udal-instalazioak

Edozein delarik ere ekitaldia, udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan Anoetako Udalak euskara erabiliko dela ziurtatzea exigituko du, jendaurreko ekitaldietan batik bat.

Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta udalaren hizkuntz baldintzei jaramonik egiten ez badie, udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu (baimen-ukapena, isuna...) hizkuntz araudia bete ez dutenen aurka.

3.6.3. Jaietako postuak

Jaiak direla-eta postua jartzeko baimen-eske datozenei udalak honako neurriak betetzearen baldintzapean emango die baimena:

1. Prezioen eta oharren errotuluak euskaraz bederen jartzea. Euskarak gutxienez gaztelaniaren pareko presentzia izango du, kopuruaren eta tamainaren aldetik.
2. Girotzeko erabiliko den musika euskal musika izatea ondoko portzentaietan:
 - Haurrei zuzendurikoetan (barrakak, e.a.) %75a euskaraz izango da.

II

NORMALIZAZIO EKINTZAK ETA AZPIEGITURA

1.-NORMALIZAZIO EKINTZAK ETA BALIABIDEAK

Orain arte Euskara Planaren edukiak aztertu ditugu lanjardun, alor eta hizkuntza irizpideei dagokienez, eta proposamenak ere hurrenkera horretan egin dira. Planaren bigarren zati honetan biltzen dira egindako proposamen guztiak, eta bildutako normalizazio ekintza guztiak alorka sailkatu ditugu. Alor bakoitzeko normalizazio ekintza hauek kuantifikatu eta kostuak esleitzea izan da hurrengo pausoa. Ezinbestekoa da kostuen dimentsionamendua egitea, eta ahalik eta zehatzen egitea gainera, urteko programak era egokian martxan jarri eta baloratzearren. Kostuak hizkuntza normalizaziorako teknikariaren (HNT) lanordutan edo diru baliabideetan adieraziko dira, kasuan kasu.

Horrela, hurrengo orrialdeetako tauletan goitik beherako lau zutabe nagusi agertuko dira.

- A-Eremua
- B-Normalizazio ekintza eta baliabideen deskribapena
- C-Kostua ordutan
- D-Kostua dirutan

Ondoren azaltzen dira lehen urteko helburuak lortzeko gauzatuko diren normalizazio ekintza guztiak. Anoetako Udalaren kasuan 9 eremu izango dira langai:

- 1-Hizkuntz gaitasuna: prestakuntza eta trebakuntza
- 2-Hizkuntza aholkularitza.
- 3-Itzulpen politika
- 4-Kanpo eta barne harremanak.
- 5-Hizkuntza irizpideak
- 6-Komunikazio plana
- 7-Hizkuntza paisaia
- 8-Jarraipena eta ebaluazioa
- 9-Teknologia berriak eta baliabide informatikoak

Euskara planean udaleko 18 langile sartu dira bete-betean eta udalean bertan euskararen normalizazio prozesuan orain arte egin den ibilbidea kontuan hartuta, honako proposamena planteatzen da.

A EREMUA	B EKINTZA ETA BALIABIDEAK	C ORDUAK	D KOSTUA
1 Hizkuntz gaitasuna eta trebakuntza	Idazkari-kontuhartzailearen prestaketa: *astean 3 egunez udaletxe bertako prestakuntza (2001/04-06)	54	220.000 pta
	*kanpoko zerbitzuak emanda, astean 4 ordu eta erdi (2001/10-12)	120	40.000 pta
	Arkitekto teknikoa eta zerbitzutako 2 langileak *3langile x 170 ordu (martxoa-ekaina)	510	150.000
2 Hizkuntz aholkularitza	Hizkuntzaren kalitatearen kontrola: Sortzen diren idatzietan egiten denaren kalitatea kontrolatzeko, lehen urtean lanjardunen laginketa egin eta internet bidez lantzea, hedatzea eta atenditzea (3 hilabetez behin)	24	
	Hizkuntz aholkularitza eskaini langileei; batez ere, planak zuzenean eragindakoei: unean unekoak eta interneteko baliabideak abian jarri. (3 astez behin)	72	
	Hiztegi terminologikoak		25.000 pta.
3 Itzulpen politika	Itzulpenak: kanpora begirakoak herritarrentzako zuzenketa/itzulpena		Puntuala.
4 Kanpo eta barne harremanak	Langile bakoitzaren boletina egitea: Planaren berri eman eta bakoitzaren eginbehar eta helburuak zehazten dituen boletina egitea. Boletin bakoitzeko ordu bi kalkulatur	36	
	Lanjardunak martxan jartzen direnean, langileei laguntza. Kalkulua, landu beharreko lanjardun bakoitzeko ordu 2.	58	
	Hurrengo urteko lanjardunak egokitu eta landu. Datorren urtean landu beharreko lanjardun bakoitzeko 2,5 ordu	20	
	<ul style="list-style-type: none"> ♣ Euskararen erabilera areagotzeko, akordioa lortu eta hitzarmenak burutu erakunde publiko zein pribatuekin. (UEMAko herrien artekoa, herrialdekoa, eskualdekoa; kasuan kasukoa) ♣ Eusko Jaurlaritzarekiko harremanak eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremanak 	20 40	

A EREMUA	B EKINTZA ETA BALIABIDEAK	C ORDUAK	D KOSTUA
5 Hizkuntz irizpideak	Lan jardunetan eta boletinean jasotakoaz gain, barne eta kanporako onartutako irizpideak, normalizatze prozesua beharko dute.	20	
	Aurten jorratu nahi diren kontratazioetan , erabili beharko diren orduak, batz besterik 15 ordu kalkulaturik: orduen erdiak, idazkariarenak izango liriteke eta beste erdiak hizkuntza normalizatazailearenak	90	
6 Komunikazio plana	Langile bakoitzarentzako boletina banatu eta bertan jasotzen dena azaldu. Langile bakoitzeko ordu 2	36	
	Zuzenean sartuta ez dauden langileentzako boletina prestatu	4	
	Herritarrentzako bandoa prestatu	2	
7 Hizkuntza paisaia	Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta enpresa pribatuek jarritako seinaleen jarraipena egin.	2	
8 Jarraipena eta ebaluazioa	Sei hilabeteko balorazioa (4), lehen urteko jarraipenaren oinarria (10) eta langileen autoebaluazio gidatua (6)	20	
	Jarraipeneko datuak elaboratzen eta jarraipen batzordearen txostena	12	
9 Teknologia berriak eta baliabide informatikoak	Baliabide informatikoen gaur egungo erabileraren azterketa eta euskarazko ereduak erabiltzeko zailtasunak eta eragozpenak gainditzera begirako azterketa egitea aurreikusten da.	40	

Bakoitzaren betebeharren banaketa egiterakoan, hurrengoa proposatzen da:

BALIABIDEEN LABURPENA

A EREMUA	B ORDU KOPURUA	C EGILEA	D KOSTUA
1- Idazkariaren prestakuntza	684 ordu	Kanpo zerbitzuak	410.000
2-Hizkuntz aholkularitza Aholkularitza + kalitatea	96	HNT	
Terminologia			25.000
3-Itzulpen politika			
4-Kanpo eta Barne harremanak	174	HNT	
5-Hizkuntz irizpideak	65	HNT	
	45	Idazkari- kontuhartzailea	
6- Komunikazio plana	42	HNT	
7- Hizkuntz paisaia	20	HNT	
8- Jarraipena eta ebaluazioa	32	HNT	
6-Programa informatikoak eta teknologia berriak	40	HNT	

Laburbilduz, hizkuntz normalkuntzarako teknikariaren (HNT) 413 ordu, idazkariaren 45 ordu, kanpo zerbitzuen 684 ordu eta 435.000 pezeta + itzulpenentan zehaztu gabeko kopuru bat beharko dira plana martxan jartzeko. (Ez dira hemen sartzen langileen dedikazio orduak ezta jarraipenerako batzordearenak ere).

Laburbilduz ondorengo baliabideak behar izango dira proposaturiko gauzatu ahal izateko.

2.-AZPIEGITURA

Plan honen arduradun bakoitzaren funtzio eta eginbeharrak jaso nahi dira atal honetan. Hurrengo azpiegitura eta funtzioak proposatu dira orain arte osatutako baliabideak kudeatu eta planaren dinamika ziurtatzeko:

2.1.-HNT: betebeharrak

- } Hizkuntz aholkularitza: hizkuntz prestakuntza zein trebakuntzako saioren koordinazioa eta jarraipena.
- } Trebakuntza espezifikoa eta aholkularitza, erabakitako ereduaren egokitzapenak.
- } Lanjardun eta alorkako edukien garapena eta jarraipena aplikazio informatiko bidez.
- } Hizkuntz irizpideen lanketa, garapena eta jarraipena, horretarako izendatutako erantzuleekin.
- } Dinamizazio- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea eta jarraipena egitea. Hitzarmengintza-lanak.
- } Jarraipen-batzordearen kudeaketa eta batzorde honentzako txostenak prestatzea eta aurkeztea.

2.2.-Jarraipen Batzordea

Partaideak:

- Euskara alorreko arduradun politikoa
- Idazkaria eta ataletako arduradunak
- UEMAko hizkuntza normalkuntzarako teknikaria (HNT)

Betebeharrak:

- } Urterako (sei hilabeterako) jarraipena egin, jarraipen-txostena aztertu eta balorazioa egitea.
- } Helburuen lortze-maila baloratzea eta egokitzapen-neurriak onartzea.
- } Udalbatzari helarazi beharreko iradokizunak lantzea eta koordinatzea.
- } Euskara-plana martxan duten beste udal batzuekin harremanak estutu eta finkatzea.
- } Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin koordinazioa bermatzea.

2.3.-Udalbatza

Betebeharrak:

- } Talde eragileak egindako proposamenak eta iradokizunak baloratu eta erabakiak hartzea.
- } Plana aurrera eramateko baldintzak erabakitzea eta baliabideak esleitzea.
- } Planaren urteko helburuen betetze-maila baloratzea eta hizkuntz irizpideak progresiboki martxan jartzeko erabakiak hartzea.
- } Planaren garapen osatua bermatzea, udalari dagozkion helburuak lortze aldera.

3. KRONOGRAMA

Normalizazio-ekintzak	2001											2002	
	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	abuztua	iraila	urria	azaroa	abendua	urtarrila	otsaila
Plana adostu, HPSri txostena eskatu	█												
Planaren onarpena Udalbatza Osoan		█											
Langileak banaka informatu		█											
Herritarrei jakinarazi			█										
Ereduen egokitzapena				█									
Prestakuntza					█				█	█	█	█	█
Trebakuntza (puntuala)			█	█	█			█	█	█			
Lanjardunen lanketa / Barne- eta kanpo-harremanak			█	█	█	█	█	█	█	█	█		
Hizkuntz irizpideen lanketa				█	█						█		
Hizkuntz kalitatea					█	█			█	█			
Hitzarmengintza			█	█	█	█	█	█					
Hizkuntz paisaia				█	█				█	█			
Baliabide informatikoen azterketa					█	█							
Sei hilabeteko balorazioa										█	█		
Urteko balorazioa/Proposamenak											█		

ERANSKINAK

I. ERANSKINA:

1. koaderno

BIDERAGARRITASUN TXOSTENA

2. koaderno
AEBEMET METODOLOGIA

AEBEMET metodologia aplikatzerakoan hiru aldi nagusi bereizten dira, hurrengo orrialdeko irudian agertzen den bezala.

Aldiak:

I. Euskara-planaren bideragarritasun-txostena egitea eta lehentasunak finkatzea. (irudiaren 1-3 urratsak).

Euskara-planen bideragarritasun-txostena egiteko orduan, aintzat hartu dira erakundeari dagokion helburu mailakatua eta hizkuntz egoera. Txosten horretan, besteak beste, administrazio-atalak izaeraren arabera sailkatu eta lehentasunak, bai sailka bai udal osoari begira, ezarri dira



II. Egindako datu-bilketa oinarri hartuta, udalari euskararen erabilera normalizatzeko proposamena egitea eta erakundearen jarduera esparruetarako hizkuntz irizpideak ezartzea dagokio. (irudiaren 4-6 urratsak)

Datu-bilketa hiru azterketatan oinarritzen da: lanjardunen azterketa, alorren azterketa eta banakako galdesorta. Datuak bildu eta aztertu ondoren, proposamena egiten da, hiru ardatzoi jarraituz: lanjardunen proposamenak, alorkakoak eta hizkuntz irizpideak. Proposamen honetan jasotako normalizazio-ekintzak aurrera eramateko baliabideak eta kostuak ere zehazten dira.

III. Planaren garapena eta jarraipena burutzea. (irudiaren 7-8 urratsak).

Atal honetan euskara-plana bideratzeko epeak, planaren erantzukizuna duten guztiak, azpiegitura eta baliabideak jasotzen dira. Era berean, planaren jarraipena eta ebaluazioa adierazle bidezko ebaluazio sistema etengabe eta osatuan oinarrituta egingo da.

Ebaluazioaz arduratuko den jarraipen batzordea eratuko da.



II. ERANSKINA: DATU BILKETA

3. koaderno

LANJARDUNEN DATU-BILKETA

4. koaderno

ALORKAKO DATU-BILKETA

III. ERANSKINA: PROPOSAMENAK

5. koaderno

LANJARDUNEN PROPOSAMENA

Ondorengo hauek dira Anoetako Udalean aztertutako 50 lanjardunetatik, orain urte batzuk hasi eta gaurdaino egindako euskararen normalkuntza-bidearen emaitzaz, jadanik beren osoan euskaraz gauzatzen diren eta, erabilera guztiz normaldua dutelako, inolako normalizazio-ekintzarik behar ez duten 13 lanjardunak:

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

1. Batzordeko bilerak zuzendu eta akta egin (1)
2. Jubilatuen elkarterako dirulagutza eskaera egin (3)
3. informazioa zabaldu (5)

IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILITZA

4. Dekretuak egin (11)
5. Gizarte segurantzian alta/baja eskatu (18)

OBRA-HIRIGINTZA

6. Obra baimenak (27)

LIBURUTEGIA

7. Kultura: kultura batzordeko bilerak zuzendu eta aktak egin (35)
 8. Kultura: (kultur programazioa (37)
 9. Kultura: elkarteei dirulaguntzak eman (39)
 10. Kultura : Aldundiari dirulaguntza eskatu (41)
 11. Musika eskola: urteko memoria
 12. Liburutegiko kultur programaketarako dirulaguntza (48)
 13. Liburutegiko estatistikak (49)
-

6. koaderno

ALORKAKO PROPOSAMENA

1. Langileen hizkuntz gaitasuna
2. Kanpo harremanak
3. Barne harremanak
4. Hizkuntza paisaia
5. Baliabide informatikoak
6. Jarrerak eta sentsibilizazioa

1.-LANGILEEN HIZKUNTZ GAITASUNA

Hizkuntzaren erabilera bultzatzea bada plan osoaren helburu nagusia, langileen hizkuntz gaitasuna aztertzea eta areagotzea, garrantzizkoa da.

LANGILEEN HIZKUNTZ GAITASUNERAKO PROPOSAMENAK

Admin.-atala	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZA	EPEA	ARDURADUNA
IDAZK.-KONTUH. HIRRIGINTZA ZERBITZUAK	Langilea, normaltasun osoz, bere eguneroko zereginak euskaraz betetzeko gai izatea.	HE egiaztatu gabe duten langileak eskolatu eta deialdian parte hartzea	6 hilabete	Langileak Arduradun politikoa

2.-KANPO HARREMANAK

Kanpo harremanei dagokienean bereizi egin ditugu, alde batetik udalak berak dituen harremanak eta beste aldetik, administrazioek, erakundeek udalarekin dituzten harremanak.

1.-Udalak sortutako harremanak: Kontuan izanda Anoetako Udalaren orain arteko funtzionamendua, aurrera begirako planteatzen diren epe laburrerako helburuak, ahozko harremanei dagokionez honako hauek dira:

Ahozkoak

Administrazioa atala	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZA	EPEA	ARDURADUNA
IDAZKARITZA	Herritarrekin dagoen egoera %70tik %100era altxatzea.	Langile bakoitzari banatu beharreko boletinean agertuko da hizkuntzaren alorrean herritarrekin nola jokatu eta lehenengo hitza euskaraz izateak daukan garrantzia.	Urte 1	Langile guztiak Arduradun politikoak
GIZARTE ZERBITZ.	Idazkaritzan egoera %76,92			
OBRA-HIRIGINTZ	Gizarte zerbitzuetan %70 Obra-hirigintzan %71,43			
LIBURUT.	Gaur egungo egoera mantentzea (%100)			

Idatziko produkzioari dagokionez pausoz pauso joan beharko da erabilera gehitzen, ereduak egokitu, langileak prestatu eta hartzaileak gai diren neurrian sortzen diren testuak ulertzeko.

KANPO HARREMANETAKO HIZKUNTZA HELBURUAK
Idatzizkoak

ADMIN. ATALA	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZA	EPEA	ARDURADUNA
IDAZK.-KONTUH.	Euskara hutsezko erabilera %0tik %60ra altxatu	- Herritarrei zuzendutako dokumentu laburren (bando, jakinarazpen, inprimaki) euskara hutsezko erabilera %50 altxatzea. - Herritarrentzako dekretu, baimen eta antzeko konplexutasun mailako dokumentuen %60 euskaraz egin. - Erakundeei zuzendutako dokumentu konplexuen erdiak euskara hutsez egitea. - Irteeretako hizkuntza euskaraz izatea %50ean.	Urte 1	Arduradun politikoa Jarraipen batzordea
OBRA HIRIGINTZA	Euskara hutsezko erabilera %9,68tik %60ra altxatu	- Herritarrei zuzendutako dokumentu laburren (bandoa, jakinarazpen, inprimaki...) %75ean euskaraz egitea - Herritarrei zuzentzen zaizkien dekretu eta baimenetan erabilera %50era hurbiltzea. Horretarako, gaur egun elebietara egiten diren erdiak euskaraz egingo dira; ez da gaztelarazkorik bidaliko. - Erakundeei bidaltzen zaizkien dokumentu laburren %75 euskaraz egitea - Zerbitzu enpresei bidalitako baldintza pleguak, esleipenetan euskararen erabilera %50era altxatu (2tik1).	Urte 1	Arduradun politikoa Jarraipen batzordea
GIZARTE ONGIZATEA	Euskara hutsezko erabilera %25etik %80era altxatu	- Herritarrentzat diren ziurtagiri, inprimaki, jakinarazpen eta antzekoetan erabilera %80 altxatzea. Horretarako elebidun egiten direnak euskaraz egingo dira.. - Herritarrentzako dokumentu konplexuagoei dagokienez, erabilera %50era altxatzea. - Erakunde publikoentzat ofizio, jakinarazpen, inprimaki eta orokorrean komunikazio administratibo sinpletan indizea %100ean mantentzea. - Erakunde publikoentzat egiten diren urteko plangintza, txosten soziala, dirulaguntzetako memoria eta antzekoetan erabilera %100 izaten segitzea.	Urte 1	Arduradun politikoa Jarraipen batzordea
LIBURUTEGIA	Euskara hutsezko erabilera %40tik %100era altxatzea	- Kontuan izanda zerbitzu hau erabiltzen dutenak batez ere haurrak eta gazteak direla, herritarrei zuzendutako idazki guztiak euskaraz joango dira %100ean. - Erakundeekiko harremanak euskaraz izango dira	Urte 1	Arduradun politikoa Jarraipen batzordea

2.- Kontuan izanda erakunde eta administrazio publikoek zein pribatuek Anoetako Udalarekiko orain arteko funtzionamendua, aurrera begirako planteatzen diren epe laburrerako helburuak, idatziko harremanei dagokionez honako hauek dira:

KANPO HARREMANETAKO HIZKUNTZA HELBURUAK
Idatzizkoak

ERAKUNDEA	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZA	EPEA	ARDURADUNA
-Eusko Jauriaritza -Foru Aldundia -Osakidetza -Udalak -...	Erakundeen arteko harreman-hizkuntza euskara izatea 1.Gaztelera hutsezko idazkirik bidal ez dezatela lortzea 2. Elebietako idazkiak arian-arian euskara hutsezkoak izan daitezela lortzea	-Lankidetzat-hitzarmenak sinatu -Gaztelera hutsez jasotako idazkiak bueltatzea. Horrekin batera gutuna bidali,udalak harremanak euskaraz izan nahi dituela adieraziz	Urte bete	UEMA Jarraipen Batzordea Osoko Bilkura
-INEM -Postaritza -INE -Gizarte Segurantza	Lehen urte honetan herritarrentzako inprimakiak eta dokumentazioa gutxienez euskaraz izatea lortzea, baita udalera datozen txostenak eta zerrendak ere.	Lankidetzat-hitzarmenak sinatu -Gaztelera hutsezko idazkiak bueltatu. Horrekin batera gutuna bidali,udalak harremanak euskaraz izan nahi dituela adieraziz	Urte bete	Hizkuntza Politikarako Sailordetza UEMA Jarraipen batzordea Osoko Bilkura
-Notaritza		-Harremanetan jarri		
-Banketxeak	Herritarrei zuzendutako erreziboak, jakinarazpenak euskaraz izatea	Lankidetzat-hitzarmenak landu	Urte bete	Jarraipen batzordea Osoko Bilkura
-Aseguru-etxeak		Lankidetzat-hitzarmena landu	Urte bete	Jarraipen batzordea Osoko Bilkura

-Zerbitzu enpresak -Hornitzaileak	- Harreman-hizkuntza euskara izatea - Baldintza pleguetan zehaztutakoa betetzea -Fakturak euskaraz bidal dezatela lortzea	- Kontratazioetan "euskara eskakizuna" klausula betetzen den ala ez jarraitzea. (Kontratazioetarako hizkuntza irizpideetan zehaztuta dago)	Urte bete	Jarraipen batzordea HNT Idazkaria
--------------------------------------	---	--	-----------	---

KANPO HARREMANETAKO HIZKUNTZA HELBURUAK
Ahozkoak

ERAKUND	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZA	EPEA	ARDURADUNA
-Eusko Jauriaritza -Foru Aldundia -Osakidetza -Udalak -...	- Erakundeen arteko ahozko harreman-hizkuntza %100ean euskaraz izatea - Administrazioak langile elebiduna jartzea udalarekiko harremanetarako	-Lankidetzeta-hitzarmenak sinatu - Gutuna bidali harremanak euskara izan nahi direla adierazteko. -Erakunde eta administrazio bakoitzean harremanetarako langile elebiduna identifikatu.	Urte bete	HNT Osoko Bilkura
-INEM -Postaritza -INE -Gizarte Segurantzza Notaritza	Lehen urte honetan ahozko harremana %75era heltzea	Lankidetzeta-hitzarmenak sinatu -Langile elebidunak identifikatu eta udalarekiko harremanetarako berauek izendatzea lortzea -Harremanetan jarri	Urte bete	Hizkuntza Politikarako Sailordetza HNT Jarraipen Batzordea
-Banketxeak	Harremana %100ean euskaraz izatea	Lankidetzeta-hitzarmenak landu Gutunak bidali harremanak euskaraz nahi direla adierazteko	Urte bete	HNT Jarraipen batzordea
-Aseguru-etxeak	Harreman %100ean euskaraz izatea	Lankidetzeta-hitzarmena landu Gutunak bidali	Urte bete	HNT Jarraipen batzordea
-Zerbitzu enpresak -Hornitzaileak	- Udalarekin harreman zuzena daukaten langileak elebidunak izatea	- Enpresa eta hornitzaileekin kontratazioetarako hizkuntza irizpideetan zehaztutakoaren jarraipena egin.	Urte bete	HNT Idazkaria Jarraipen batzordea

Jaun/Andre hori(ek), agur.

Muy sr/a(s). mío/a(s):

Zu(e)k igorrita, jaso dugu uuuu/hh/ee data duen **halako eta halako** dokumentua.

Hemos recibido el documento **tal y tal** que nos ha(n) enviado con fecha de dd/mm/aaaa.

Tamalez gaztelania hutsez idatzita zegoen.

Lamentablemente venía redactado únicamente en castellano.

Estatu osorako lege organiko maila duen eta 1979tik indarrean den Autonomi Estatutuaren arabera, bestalde, *“euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza izanik, hizkuntza ofizialaren maila izango du Euskal Herrian”* (6.1. art.).

Según el Estatuto de Autonomía —con categoría de ley orgánica para todo el Estado y en vigor desde 1979— *“el euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá ... carácter de lengua oficial en Euskadi”* (art. 6.1.).

Hori dela-eta, erakundeon arteko elkarlanari trabarik ez eragiteko, jakinarazten dizu(e)t udal honek euskaraz jaso nahi dituela adierazpen administratibo guztiak.

Por ello, para no causar perjuicios a la colaboración interinstitucional, le(s) comunico la voluntad de este ayuntamiento de recibir todas las comunicaciones administrativas en euskera.

Hala egin artean, beraz, indarrrik gabe geratzen dira udal honentzat zure(en) idazkiaren ondorioak

Por ello, en tanto no haga(n) así, no tendrán vigencia para este ayuntamiento los efectos de su escrito

Honekin batera bidaltzen dugu aipatu idatzia eta har gaitzazu(e) ondorio guztietarako haren berri hartu gabetzat.

Adjunto le(s) devolvemos el citado escrito, por lo que considére(n)nos a todos los efectos como no informados del mismo

Besterik gabe, ongi izan eta hurrena arte.

Sin más, le(s) saluda atte.

Anoeta, urtea/hilabetea/eguna

NN
Anoetako Udaleko
alkate udalburua

Sarreraren esan denez, bi urteko helburuak (helburu estrategikoak) lortzeko, urteroko helburu zehatzak jarriko dira. Horrek esan nahi du urtero lortu beharreko "helmuga" minimoak jartzen direla. Gutxieneko helmuga horiek ahozkoari dagokionez eta 2000ko urritik 2001eko urrira bitartekoak, ondokoak izatea proposatzen da.

BARNE HARREMANETAKO HIZKUNTZA HELBURUAK
Ahozkoak

Admin. atala	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZA	EPEA	ARDURADUNA
ADMIN. ATAL GUZTIAK	Euskara lan-hizkuntza izatea bermatzea	- Langileekin bilera egin eta irizpideak argi jarri. Langile bakoitzari banatu beharreko boletinetan jasoko da ahozko hizkuntzari buruzko erreferentzia.	Urte 1	Langileak Arduradun politikoak

BARNE HARREMANETAKO HIZKUNTZA HELBURUAK
Idatzizkoak

Admin. atala	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZA	EPEA	ARDURADUNA
IDAZK.-KONTUHARTZAILETA	Erabilera %14tik 70era altxatu	- Nomina, pertsonalaren eskaeretako idazkietan erabilera %60ra altxatu; horretarako elebrietan egiten direnak euskaraz egin eta gaztelerazkoak jeitsi. - Lan bileretako agiriak euskara hutsez egin %100ean.		Arduradun politikoa Jarraipen batzordea
OBRA HIRIGINTZA	Indizea %53tik %85era altxatu	- Lan bileretako agiriak euskara hutsez egitea %80an. - Txosten laburretan euskararen erabilera %66tik %77ra altxatzea. - Txosten luzeetan erabilera %100ean mantentzea.		Arduradun politikoa Jarraipen batzordea
GIZARTE ZERB.	Erabilera %89tik %100era altxatu	- Bietara egiten diren bileretako agiriak %100ean euskaraz egitea. - Barruko harremanetarako ohar, jakinarazpen eta idatzi laburretako indizea %100ean mantentzea. - Txosten laburretan indizea %100ean mantentzea		Arduradun politikoa Jarraipen batzordea
LIBURUTEGIA	Indizea %89tik %100era altxatu	- Bietara egiten diren bileretako agiriak %100ean euskaraz egitea. - Txosten laburretan indizea %100ean mantentzea. - Aurrekontu dokumentuetan indizea %100ean mantentzea		Arduradun politikoa Jarraipen batzordea

- ♣ Hemen agertzen den aldaketa lortzeko, inprimaki eta eredu normalizatu asko aldatu egin beharko dira.
- ♣ Trebakuntza saioretan, IVAPen administrazio hizkeraren kontzeptuari jarraituz, inprimaki eta eredu berriak landuko dira.
- ♣ Horrekin batera, hiztegi terminologiko eta laneko laguntza telefonikoak banatuko zaizkie beharginei.

Hizkuntza paisaia, udalaren irudia osatzen duten elementuek gorpuzten dute, balio sinboliko zein informatiboa erantsiz. Kanpoko hizkuntza paisaian errotulu nagusiak, informazio eta norabidezko errotuluak, aparkalekuetakoak, katalogo, gida, prentsa iragarki, megafonia eta etiketajea jasotzen dira; barruko hizkuntza paisaian, ostera, barruko informazio eta norabide errotulazioa, bulegoetako dietario, egutegiak, e.a., tresneria, fotokopiagailuetakoak, zigiluak eta anagramak, jasotzen dira.

ADMIN ATALA	HELBURUA (Noraino heldu nahi den lehen urtean idatzizkoari dagokionez)	NORMALIZAZIO EKINTZA (Zer egin behar den hori lortzeko)	EPEA	ARDURADUNA
UDALEKO ATAL GUZTIAK	Kanpoko hizkuntza paisaia %100ean euskaraz egotea Udal barruko hizkuntza paisaia %49tik %70era altxatu		Urte 1	Idazkari-kontuhartzailea HNT Arduradun polititkoa

HIZKUNTZ PAISAIAREN HELBURUAK LEHEN URTERAKO

A. BARNEKO HIZKUNTZ PAISAIA

ADMIN ATALA	HELBURUA (Noraino heldu nahi den lehen urtean idatzizkoari dagokionez)	NORMALIZAZIO EKINTZA (Zer egin behar den hori lortzeko)	EPEA	ARDURADUNA
IDAZKARITZA KONTUHARTZAILERIA	1. Bulegoetako fitxero/karpeten indizea %24,36tik %70era altxatu	1. Gaintik pegatinak jarri euskaraz idatzita.	6 hilabete	HNT Idazkaria Arduradun politikoa
	2. Tresneriaren errotulazioaren indizea %0tik %44ra altxatu	2. Gaintik pegatinak jarri euskaraz idatzita		
	5. Su itzalgailua	Tresneriaren mantenimendu-enprekin harremanetan jarri ageriko elementuak euskaraz egon daitezen.		
	ZIGILUetako hizkuntza euskara izatea eta berauen eta ORRI eta GUTUN AZALetan euskararen kalitatea zaintzea eta bermatzea. Indizea %70etik %100era altxatu	- Sarrera eta irteerako zigiluak euskara hutsez jarri - "PENDIENTE DE PAGO /ORDAINDU GABE" euskara hutsezkoa egin edo gaztelerazko zatia itsutu.		
OBRA HIRIGINTZA	1. Bulegoetako fitxero/karpeten indizea %0tik %70era altxatu	1. Elebieten eta gazteleraz daudenak euskara hutsez jarri, gaintik pegatinak jarriz .	6 hilabete	
LIBURUTEGIA	1. Barruko informazio- eta norabide-errotuluetan euskararen indizea %60tik %80ra altxatu	-Elebieten daudenen %40tik erdia euskara hutsez jartzea	Urte 1	

ZIGILUAK, FAX ORRIAK ETA IDAZPURUAK

ZIGILUAK				
UDALA	ZIGILUAK: Guztiak euskaraz egotea eta euskaraz daudenen kalitatea zaintzea.	- Sarrera-irteeren zigiluaK (2)	8 hilabete	HNT Idazkaria
KARTAZALAK				
OROKORRA	ANOETAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE ANOETA	- Euskaraz jartzea	8 hilabete	Idazkaria HNT Langileak
IDAZPURUAK				
OROKORRA	Orrien idazpuruak elebieten daude, helburua euskara hutsez egotea.	- Aldatu eta euskaraz jarri	8 hilabete	HNT

B. KANPOKO HIZKUNTZA PAISAIA

ADMIN. ATALA	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZA	EPEA	ARDURADUNA
HERRIAN	-Bertan dauden ageriko elementuak euskaraz egotea -Euskara kalitatez erabiltzen dela ziurtatzea		Urte 1	Idazkaria HNT Jarraipen Batzordea

	Udalaren erantzukizuna ez diren seinaleak eta gainerako elementuak euskara hutsez egotea:	- Erakundeekin harremanetan jarri	Urte 1	HNT Jarraipen Batzordea
--	---	-----------------------------------	--------	----------------------------

HELBURUAK LEHEN URTERAKO

ADMIN. ATALA	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZA	EPEA	ARDURADUNA
UDALEKO SAIL GUZTIAK	-HELBURU NAGUSIA: Langileek lan egin ahal izateko programa informatikoak euskaraz izatea Windwos eta Office Internet, Outlook Express	-Merkatuan eskura dauden bertsioak erosi Helbide elektronikoa	Urte 1	HNT Arduradun politikoak Osoko Bilkura
IDAZKARITZA KONTUHAR TZAILETZA	Sarrera-irteerak Erregistrokoa	IZFERekin harremanetan jarri gazteleraz eta elebrietan dauden programen euskara hutsezko bertsioak egiteak suposatuko lukeen denbora eta kostea kalkulatzeko eta lehenengo urtean ziurtagiriak euskara hutsean egon daitezzen.		
	Ura, zaborra eta abarren padroia			
	Biztanleen errolda			
	Ibilgailuen errolda			
	SIGE kontabilitateko programa			
LIBURUTEGIA	ABSYS	BARATZ enpresarekin harremanetan jarri, programa osoa euskaraz egon dadin eskatzeko	urte 1	HNT Arduradun politikoak Osoko Bilkura
	-Sarea antolatzea	-UEMAko Web orria optimizatzea eta langileei laguntza emateko Sarea antolatzea		UEMA

✘ Euskarazko programa eta baliabide informatikoen eskaintzari buruzko informazioa eta sor daitezkeen arazoak konpontzeko laguntza eskainiko da.

✘ Horrekin lotuta, Internet sareak eskaintzen dituen hizkuntza baliabideak erabiltzera begirako informazioa banatuko da. UEMAK duen Web orriaren bidez, laguntza eta aholkularitza jasotzeko erabiliz

6.- JARRERAK ETA SENTSIBILIZAZIOA

ADMIN. ATALA	HELBURUA	NORMALIZAZIO EKINTZA	EPEA	ARDURADUNA
UDALEKO SAIL GUZTIAK	Langileak euskaraz lan egin dezaten beregaitasun maila lortzea eta euskararen eguneroko erabilerari eustea eta sendotzea	<ul style="list-style-type: none"> - Erabilera planaren inguruko informazioa eman - Euskararen normalkuntzan eragiteko izan ditzaketen ideiak jaso eta landu 	6 hilabete Urte 1	HNT
ARDURAD. POLITIKOAK	Euskararen eguneroko erabilerari eustea eta sendotzea	Erabilera planaren inguruko informazioa eman	6 hilabete Urte 1	HNT

7. koaderno

HIZKUNTZ IRIZPIDEETAKO PROPOSAMENA

Hizkuntz irizpideetan, udalaren hizkuntz politikaren definizioa egiten da. Hemen esaten da hizkuntzaren erabileran jarraituko diren ohiko patrioiak zeintzuk izango diren, batez ere hurrengo puntuetan.

Hizkuntz irizpideak plana garatu ahala joango dira jorratzen. Besteak beste, honako jarduera esparruok hartuko dira kontuan:

1. Etengabeko prestakuntza.
2. Kontratazioak
3. Dirulaguntzak
4. Administrazioaren irudia eta argitalpenak
5. Ekitaldi publikoak
6. Udal baimenak

1.1. LANGILEEN HIZKUNTZ PRESTAKUNTZARAKO PROPOSAMENAK LEHEN URTERAKO

ADMINISTRAZIO ATALA	HELBURUA	PROPOSAMENA	EPEA	ARDURADUNA
SAIL GUZTIAK	Langileek lana euskaraz kalitatez egin dezaten lortzea	Aholkularitza Zuzenketak	Urte 1	HNT

Trebakuntza saioen helburua eguneroko zereginak euskaraz egitera ohitzea da.

1.2. ARDURADUN POLITIKOEN HIZKUNTZ PRESTAKUNTZARAKO PROPOSAMENAK LEHEN URTERAKO

ARDURADUN POLITIKOAK	HELBURUA	PROPOSAMENA	EPEA	ARDURADUNA
UDALBATZA	Korporaziokideek euren euskara gaitasuna eta prestakuntza sendotzea eta indartzea, lana euskaraz kalitatez egin dezaten lortzeko.	Trebakuntza	2 hilabete	Jarraipen batzordea

Trebakuntza saioak batez ere irakurmena eta idazmena lantzerako saioak izango dira, terminología eta hiztegia aberasteko saioekin batera.

Hauek dira Anoetako Udalak kontratatuta dituen zerbitzuak:

KANPOKO ZERBITZUAK		ENPRESA	AHOZ			IDATZIZ		
			E*	Bi*	G*	E	Bi	G
K-1	Informatikarako mantenimendua	SAREBERRI						
	Fotokopiagailuen mantenimendua	RICOH						
	Su-itzalgailuen mantenimendua	AIKA						
K-5	Bulego materiala	MONTTE						
	Garbiketarako materiala	VADRISA						

K-1 = udal ondasunen mantenimendukoak * E = euskaraz Bi = euskaraz zein gaztelaniaz G = gaztelaniaz
 K-2 = aholkularitza teknikoa ematekoak
 K-3 = herritarrei zerbitzua ematekoak
 K-4 = udal instalazioen esplotazioak
 K-5 = hornidurak

Txosten guztian aintzat hartutako irizpideetan oinarrituz, datorren urterako, hurrengo kontratazioetan hizkuntz irizpideak ezartzeko proposamena egin da

LANDUKO DIREN KONTRATUAK

KONTRATAZIOA	KONTRATU MOTA	HELBURUA	PROPOSAMENA	EPEA	ARDURADUNA
1. Langileak kontratatzea	Udal lanpostu zerrendako lanpostua Aldi baterako lanpostua	Kontratatzen diren pertsona guztiak elebidunak izatea eta lana euskaraz egiteko kapaz izatea.	- Lanpostuetan hizkuntza eskakizuna jasota dauden moduan eskatu - Derrigorrez lanpostuak betetzeko hizkuntza eskakizuna eskatuko da	Unean unekoa	Idazkaria HNT Alkatea
2. Kontratazio administratiboak	Orokorrean	Udalak kontratatzen dituen enpresek udalak beretzat jarritako hizkuntza irizpide berberak betetzea	*Zerbitzu bat kontratatzeke orduan beti "euskararen eskakizuna" klausula derrigorrezkoa izango da. *Halakorik dagoen kasuetan, arraipena egin, betetzen den kusteke. Bete ezean, neurriak hartu. *Klausularik ez dagoen kasuetan, irizpideak landu		HNT Idazkaria Alkatea

KONTRATAZIOA	KONTRATU MOTA	HELBURUA	PROPOSAMENA	EPEA	ARDURADUNA
Su itzalgailuen Mantenimendua AIKA enpresa	K-1	Mantenimendua egitera datorren langilea elebiduna eta gai izatea azalpenak euskaraz emateko.	-Kontratua aztertu eta baldintza plequetan "euskararen eskakizuna" klausula sartzea - Itzulpenak egin behar badute, itzulpen zerbitzuen inguruko informazioa eman.	6 hilabete	Idazkaria HNT Jarraipen batzordea
Fotokopiagailuen mantenimendua RICOH enpresa		-Ageriko idatzizko agiriak eta fakturak gutxienez euskaraz izan daitezela	-Mantenimendu-orria euskaraz egon dadila - Kontratua euskaraz egotea		
Herriko umeentzako antolatutako ikastaro/ekitaldiak kontratatzeke: ipuin kontalariak, kirol emankizunak	K-3	Zerbitzua euskaraz eskaintzea	- Baldintza plequetan "euskararen eskakizuna" klausula sartzea - Kontratuak euskaraz idaztea	Urte 1	Idazkaria Arduradun politikoa HNT
Jaietako taldeen kontratazioak	Jaietako taldeen kontratazioak	Zerbitzua euskaraz eskaintzea	- Baldintza plequetan "euskararen eskakizuna" klausula sartzea - Kontratuak euskaraz idaztea	Urte 1	Idazkaria Arduradun politikoa
Jaietako barrakak		Barraketan musikaren %75a euskaraz. Kartelerian euskaraz gaztelaniaren pareko presentzia izango du.	Jaietako barraka eta antzeko ikuskizunak eskaintzen dituztenei, prezio-kartelak, musika eta paisaiako beste elementu batzuk nola euskaratu aholkatuko zaie.		
Bulego materiala	K-5 Hornidurak	Hornitzaileek bidaltzen dituzten fakturak eta bestelako idazkiak euskaraz egotea.	Zerbitzu enprekin harremanetan jarri normalizazio planaren berri eman eta fakturak, idatzizko harremanak euskaraz eskatzeko. Kontratuak aztertu eta euskararen klausula baldintza txertatzea aztertu.	Sei hilabete	UEMA Idazkaria Arduradun politikoa

Baldintza plequetan jaso beharrekoa:
Ezinbesteko baldintza izango da umei zuzendutako ekintzak eskaintzen dituztenak (monitoreak, ipuin kontalariak eta abar) euren zerbitzua euskaraz eskaintzeko gai izatea.

Baldintza plequetan jaso beharrekoa:
Ikuskizunarekin zerikusia daukan hizkuntza paisaia gutxienez euskaraz egotea. Baldintza modura eskatuko da:
♦ Ikuskizunarekin lotutako karteleria euskaraz egotea.
♦ Sarrerarik balego erredakzioa euskaraz egotea.

4- ADMINISTRAZIOAREN IRUDIA ETA ARGITALPENAK

Udalaren irudia gehien bat paper ofizialetako idazpuru, fax orri eta zigiluetan islatzen da.

LANDUKO DENA	HELBURUA	PROPOSAMENA	EPEA	ARDURADUNA
IRUDIA *Zigiluak, fax orriak eta idazpuruak	Elementu guztiak euskaraz egotea	Proposamen zehatza 6. Koadernoan dituzue "Alorkako proposamenak"	6 hilabete	Idazkaria HNT
ARGITALPENAK -Orokorra	-Argitaratu beharrekoa euskaraz ez badago ez da argitaratuko	Argitaratu beharrekoaren jarraipena egin	Urte 1	Idazkaria HNT Arduradun politikoa
-Herrian zabaltzekoak (bandoak...)	Euskaraz izatea. Gaztelaniazko laburpen txiki bat erantsi letra txikiagoan.	Ulertzeko gaitasuna ez dutenek udalean jaso ahalko dute erdarazko bertsioa		
-Iragarkiak	-Aldizkari ofizialetan zein egunkarietan euskaraz argitaratzea	-Lehentasuna euskara hutsezko komunikabideek izango dute. Udalak euskara hutsez igortzea eta dagokion erakundeak egitea gaztelaniazko itzulpena		

5- EKITALDI PUBLIKOAK

Udaleko edo honen erakunde autonomoetako kargu eta enplegatuek euskara erabiliko dute udalerrian egin litezkeen ekitaldi publikoetan, erakundearen duten kargu edo lanpostuagatik ari badira.

HELBURUA	PROPOSAMENA	ARDURADUNA
<p>-Udaleko karguek eta enplegatuek euskara erabiltzea.</p> <p>-Udalak parte hartzen duen ekitaldietan euskararen erabilera ziurtatzea</p>	<p>Ekitaldian parte hartu behar duen kargua edo enplegatua elebiduna izatea</p>	<p>Arduradun politikoak</p>

6- UDAL BAIMENAK

BAIMEN MOTA	HELBURUA	PROPOSAMENA	EPEA	ARDURADUNA
1. Hirigintza arlokoak *obrak	-Ageriko elementuetan euskararen presentzia ziurtatzea	Hizkuntza irizpideak lantzea	Urte 1	HNT Idazkaria Jarraipen batzordea Osoko Bilkura
*irekitzeko baimenak	-Eskatzaileak errotulazioa euskaraz jartzea	Hizkuntza irizpideak lantzea		
2. Udal instalazioak *udalaren lokala erabiltzeko	-Lokal horretan antolatuko den ekintzan euskara erabiliko dela exijitzea	Hizkuntza irizpideak lantzea		
*udalaren azpiegitura erabiltzeko	- Azpiegitura erabiliko den ekintzan euskara erabiliko dela exijitzea	Hizkuntza irizpideak lantzea	Urte 1	
3. Jaietako postuak	Euskaraz egotea	Baimen-eske datozenei honako neurriak betearaztea: .Prezioen eta oharren errotuluetan euskarak gutxienez gaztelaniaren pareko presentzia izatea .Jarriko den musika euskal musika izatea (haurrei zuzendurikoetan %75a euskaraz izango da).	Urte 1	